

{ analisisia } Oihana Llorente Arretxea

Generoaren tratamendua

nertziak zakila du. Garden bezain gordin mintzatu zen Maite Asensio kazetaria UEUren “Generoaren tratamendua kazetaritzan. Lanerako tresnak eta estrategiak” ikastaroan. Astelehen eta astear-tean komunikazio alorreko hoge-i bat profesional zein ikaslek euskal kazetaritzak parekidetasunaren bidean eman dituen pausoak aztertut zituzten, eta begi bistan dituen erronketan ere ipini zuten arreta. Tartean zen GAUR8.

Kazetaritza ez da neutroa. Unibertsitateko katedratikoen belarrietan kurrinka egingo luke-en esaldia maiz agertu zen ikas-taroan. Neutrotzat jotzen den hori, gainera, androzentrikoa eta sexista dela ohartarazi zuen Asensiok. Hala, neutral deritzon horren aurka eta kazetaritza fe-ministaren alde egin zuen.

Kazetaritzak duen miopia androzentrikoa sendatu eta genero ikuspegia txertatzeko ahalegina. Kalitatezko kazetaritza egiteko Udako Euskal Unibertsitateak eman digun lezioa.

Kazetaritza feministak kalitatezkoa eta hobea den kazetaritza egiteko aukera eskaintzen duela dio. Ziur da. Izan ere, Asensioren ustez, errealitatea genero ikuspegitik aztertzen duen kazetaritzak arazoan errora joan eta ez-kutuan dauden egiturak eta indarkeriak azaleratzen ditu.

Zeharkakotasuna

Genero ikuspegia modu egoki eta eraginkorrean lantzeko ga-koa omen da zeharkakotasuna. Generoa era txukunean trata-tzea ezin da kazetari bakar ba-ten ardura izan, ikuspuntu hori, beraz, medioaren beraren lerro editorialean, agendan eta edu-kietan txertatu behar dela na-barmendu zuen Asensiok. «Bo-rondatea beharrezkoa da, baina baita lanak antolatzea eta siste-matizatzea ere», gaineratu zuen.

ARANTZA SANTESTEBAN

HISTORIALARIA


«Gurea ez da ikuspegi zokoratu bat, mundua eraldatzeko begirada baizik»

Ez du bere burua gaian aditutzat jotzen, baina hainbat komunikabidek bere aholkularitza galdegin dute. UEUk antolatutako “Generoaren tratamendua kazetaritzan. Lanerako tresnak eta estrategiak” ikastaroan ere hizlari aritu da. Zutabegilea da GARAn, eta feminista.

«Euskal kazetaritza parekidetasuneko bidean? Praktika onen eta txarren analisisa» gaia hizpide hartuta aritu zara. Badira praktika onak euskal kazetaritzan?

Euskal Herrian kazetaritzan egon diren praktika onen txekeoa egiten saiatu naiz, eta, zorionez, esan dezaket

baietz, badirela praktika egokitzat har daitezkeenak. Egokiak diren praktikez hitz egingo nuke nik; “ona” eta “txarra” terminoek epaia suposatzen dute eta interesgarriagoa iruditzen zait gauzak ikuspegi profesionalago batetik aztertzea. Edozein kasutan, euskal kazetaritzan kazetaritza egokiagoa edo kalitatezkoagoa egiteko kezka badela esan daiteke, eta genero ikuspegia txertatzea kalitatezko kazetaritza egitea den adostasuna badago erredakzioetan. Feminismoak, elkarteek edo norbanakoek egindako ekarpenak kontuan hartzen hasi dira, eta, horren lekuko, komunikabide



Argazkiak: Luis JAUREGIALTZO | ARGAZKI PRESS



Eibarko Markeskua jauregian komunikabide desberdinetako kazetariak bi egunez genero tratamenduaren inguruan hausnartzen aritu ziren.

Luis JAUREGIALTZO | ARGAZKI PRESS

Emakumeen **ikusgaitasunaz** ere mintzatu zen, bai presentzian eta baita gaietan ere. Edozein albiste edo erreportajetan emakumeak agertzea bermatu behar dela mahaigaineratu zuen bizkaitarrak, eta, gertakariaren lekuko gisa edota gaiaren aditu moduan aurkeztuz, emakumea bera albistearen protagonista bilaka daitekeela ekarri zuen gogora. Orain arteko esperientziari erreparatuz, genero ikuspegia aintzat hartu ez eta inertzia agintea utziz gero gizonak dira protagonista. Bataila kuantitatiboa irabazteko, beraz, **kuotak** ipintzea neurri praktikoa izan daitekeela defendatu zuten ikastaroan. Hala, iritzi emaileetan, elkarrizketatuetan edota lehen orrialdera eramango diren protagonistetan ipin daitezke kuotak.

Gaitegian ere zeresana du genero ikuspuntuak. Feminizatu-tako gaiak unibertsal bilakatu behar direla sostengatu zuen Asensiok. Pribatutzat jotzen ditugun eremuetan jarri zuen lupa, eta espazio hori ere politikoa dela defendatu zuen, haren ikusgarritasuna aldarrikatuz. «Ea noiz ikusten ditugun etxeko

langileen protestak ekonomiako sailean edota zaintza politikak!», bota zuen erronka gisa.

Estereotipoak

Sexismoak gizonengan duen eragina ere albiste izan behar dela defendatu zuen eta maskulinizatutako gaiek emakumeen-

gan duten eragina lantzeko aukera ere plazaratu zuen. Botere harremanak egon badaudela agerian ipintzea da, beraz, gomendioetako bat.

Estereotipo sexistak saihestu eta genero rolak ez indartzea hil ala bizikotzat jo zuen ikastaroan. Emakumeen irudi eta argazkiak hautatzerako or-

duan aintzat hartzeko hainbat aholku ekarri zituen gogora. Hala, itxura fisikoari buruzko iruzkinik ez egitea edo biktima diren emakumeek gain ahaldundutako emakumeak ere agertzea garrantzitsu jo zuen. Era berean, gizonen artean egon daitekeen aniztasuna ikusgarri egitearen alde agertu zen.

Genero indarkeria

Genero indarkeriaren tratamendua zer-nolakoa izan behar den esatera ere ausartu zen kazetari bizkaitarra. Hala, gaia giza eskubideen ikuspegitik tratatzea defendatu zuen, baita auziari zor zaion dimentsio politikoa ematea ere. Sentsazionalismotik eta prentsa horitik ihesi, bizilagunen testigantzak ekidin eta adituen eta analisisen alde egiteko deia egin

ezberdinetan genero trataera egokia bermatzeko estilo liburuak egiten ari dira, edota, komunikabideen barruan, generoa zehar lerro gisa lantzeko barne mailako ardura berriak sortzen ari dira.

Eta txarrak?

Noski badaudela. Ikuspegi androzentriko batetik egiten den praktika oro da desegokia, eta, beraz, orain arte kazetaritza egiteko egon den modua bera ere hala da.

Adibide argiak jartzeko aukera ba al duzu?

Praktika egokitzen har ditzakegunen artean, komunikabide batzuetan garatu diren estilo liburuak eta horiek ekarri dituzten hainbat neurri daude. Egunkarietako lehen orrialdeetan gizon eta emakumeen irudien agerpenak modu parekidean arautzen dituzten, hizkuntza sexistaren erabilera arautzen dute, emakumezkoen ekarpenak sekzio nagusietan barneratzen dituzten... Era berean, EITBk atera zuen programa sexista bertan behera uzteko hainbat eragile sozial eta politikok egindako lana edota emakume aditu eta arituen gidaren proiektua ere izan daitezke adibide onak.

Parekidetasunari dagokionean, euskararen erabilpen egokia egiten al da?

Esperimentazio moduko baten aurrean gaude, terminologia inklusiboagoa asmatuz, mistoak izan daitezkeen hitz elkarketen ordena aldatuz edo unibertsaltasuna irudikatu nahi duten esapideetan emakumeen dimentsioa ere barneratuz... Hala eta guztiz ere, hizkuntzalaritza eta generoaren teoria uztartuz gero euskarak zer eman dezakeen aztertze dago oraindik. Gurea, sexu marka apenas biltzen duen hizkuntza izanik, baliagarriagoa izan liteke generoen binarismotik ihes egiteko. Ez badugu hain markatua zer den gizonarena eta zer emakumearena, genero errepresentazio hertsietatik ihes egitea errazagoa izan liteke, eta gizon edo emakume sentitzeko modu ezberdin horiek guztientzako aterpe izan liteke euskara. Territorio libreagoa bat, zentzu guztietan.

Iritzia egunkarietako sekzio garrantzitsuenetakoa da eta han gizonak izan ohi dira jaun eta jabe, ezta?

Gu ez gara “jaun eta jabe”, hori egia da, izatekotan “andre eta jabe” izan beharko ginatkeelako gainera; jabeagoarena ere zalantzan jartzen dut, emakumeak beti

izan gara komunalagoak. Ez dut aztertu ehunekotan zenbat gizon eta zenbat emakumezko gauden iritzi sailetan. Edozein kasutan, emakumeok azkenaldian iritzi sailetako orrietara ere egin dugu salto, eta horrek orain arte lantzen ez ziren hainbat gai mahaiaren gainean jartzea suposatu du. Horrez gain, zeinek zer esaten duen ezagutzeko balio izan digu, eta, intuizioak esaten zigun bezala, maila handiko ekarpena egiten duten emakumeekin egin dugu topo. Hala ere, azkenaldian nik arrisku bat ikusten diot honi guztiari. Ez dakit zer puntutaraino ez ote garen gai posible guztien artean “gureak” –“emakumeenak”– diren gaietan espezializatzen ari. Azaltzen ahaleginduko naiz. Nire ustez gero eta nabariagoa da bi sexuen araberako errepresentazioa indar dadin sistemak egiten duen presioa. Kapitalismoak funtzionatzen jarrai dezan bi sexuen araberako rolak behar ditu, bere oinarrian dagoen erreproduktzio-produktzio harremanak iraun dezan. Hartara, maila ideologikoan identitate sexualen aniztasuna gero eta zabalagoa den arren, eredu horiek guztiak “gizon” eta “emakume” rol binarioan sailkatzen jarraitzen dugu. Horrekin esan nahi dut emakumeak “emakumeenak” diren gai horietan espezializatzeak arriskuak izan ditzakeela genero harreman sistema

zuen. Mugimendu feminista-
ren balorazio eta mobilizazio-
ei leku egitea eta biktimen la-
guntzarako indarrean dauden
telefono zenbakiak txertatzea
ere gomendagarria delakoan
dago.

Orain urtebete inguru Bil-
bon “shaolin monjea” bezala
ezaguna egin zen hiltzaileak
eraildako emakumeen gaine-
an komunikabideek idatzi eta
esandakoak gogor gaitzetsi zi-
tuen Asensiok. Horrelako ka-
suetan, kalitatea kantitatearen
gainetik ipintzeko beharra da-
goela ondorioztatu zuen.

Erredakzioak ispilu

Etxe barrura begira jarri zi-
tuen entzuleak Estitxu Eizagi-
rrek ondorengo solasaldian.
“Argia” aldizkariko zuzenda-
riak bizitza zentroan ipini eta

haren bueltan eraiki nahi du
erredakzioa. Pertsona, izan
ere, etengabeko zaintza be-
har duen animalia da Eizagi-
rrearen begietara, eta, hala,
lantokia, eguneko ordurik
gehienak igarotzen ditugun
eremua, horretarako presta-
tuta egon behar dela uste du.
Arkitektonikoki langileen be-
harretara egokitutako espa-
zioak izatea garrantzitsu jo
zuen, bai eta ordutegi mal-
guak aukeran izatea ere.

Karguak, gainera, lanaldiei
lotuta ez egotea defendatu
zuen. Hartara, zama familia-
rrak dituzten horiek ere lan
ardurak eduki ditzakete. Pa-
rekidetasuna horizontalki
eraikitzen dela sinetsita dago
Eizagirre, eta, hala, erabaki
guneetan langile guztiak jo-
koan sartuta denek irabazten
dutela sostengatu zuen.

Euskarak genero marka
deigarririk ez edukitzeak ez
du hizkuntza ez-sexista
bihurtzen. Hala adierazi
zuen Amelia Barquinek Ei-
barren eskainitako solasal-
dian. Euskarak eta bereziki,
honen erabilerak, sexismoa
izan badutela ohartarazi
zuen. «Euskara batuaren
erabilera modu androzentri-
koan egiten da, gizona kos-
mobisioaren erdigunean ko-
katuz», salatu zuen.

Gustura asko aritu ziren
hausnartzen eta eztabaida-
tzen UEUko ikastaroan parte
hartu zutenak. Erabateko ka-
zetaritza feminista urrun
dagoela jakitun dira denak,
bidean mugarriak ipini dire-
la-eta, baina, gertuago senti-
tzen dute helmuga. Euskal
kazetaritza feministaren bi-
dea abian da, beraz.

errotik aldatu nahi badugu. Emakumeok
gaitegi zabalagoa dugu, pertsonala politikoa
izan dadin aitzindaritza hartu beharra
daukagu. Baina, nire ustez, konfort
zonaldeak betikotu gabe, “gure gauzez” soilik
hitz egin gabe. Ardura handiagoa dugula uste
dut; gizon eta emakume izatea botere
harreman baten baitan arautzea baino,
identitate aske eta anitzen arabera
adieraztera jo behar dugu. Horrez gain,
iruditzen zait, gaitegiari gai berriak gehitzeaz
gain, kezkatzen eta arduratzen gaituzten gai
guztien inguruan generoaren araberako
saiklapen hori gainditzera bideratu behar
dugula. Esan beharra diegu ardura politikoa
dituztenei ez abiadura handiko trenaren
irakurketa kritiko bat egiterik feminismoa
albo batera utzita. Ez dagoela ekonomia
alternatiboaz hitz egiterik ez bada
feminismoa hasieratik txertatzen. Hau da,
gurea ez dela ikuspegi urrundu eta zokoratu
bat, gurea mundua eraldatzeko begirada
ezinbestekoa dela, eta bestela ez dela egongo
benetako aldaketarik.

**Ataka konplikatuan ipiniko zaitut. Nola
baloratzen duzu GAUR8?**
GAUR8 egunerokotasun mediatikoaren
erdigunetik urruntzen laguntzen duen
gertuko irla bat dela iruditzen zait. Ez dago
urruti epizentrotik, baino bertan airea
errazago har liteke. Iruditzen zait GAUR8ren
ildoaren atzetik, begirada feministak
espazioa izan dezan lan handia egiten dela
hainbat kazetariren eskutik. Iruditzen zait
kalitatea lehenesten dela. Eta iruditzen zait
kazetaritzak duen errealitatearen gainean
proposamenak egiteko zereginean, GAUR8
eredu eta praktika anitzen/ezberdinen
begirada zabaltzeko ezinbesteko publikazio
bihurtzen ari dela. Hala ere, aurretik esaten
nuen bezala, nire ekarpena genero rolak
hankaz gora jartzeko eta errotik aldatzeko
emakumeei ahotsa emateaz gain, emakume
eta gizon anitz horiei espazio gehiago
ematea izango litzateke. Rolak eraldatzeko
lan handia dago, eta, horrek argi luzeak
jartzea eta bidaia motel eta ongi egitea
eskatzen duen jakitun, animo!

Auzolana

Joseba
Otondo

Auzolana uhol-
deen kalteak
konpontzeko,
bestak antola-
tzeko, herritarrak herriaz, auzoaz
arduratzeko. Baina auzolanak ba-
tzarra zuen hurbileko ahaide. Eta
auzolanak eta batzarrek herri-lu-
rrak edo herri-jabegoak zituzten
oinarri material. Auzolanaren ba-
linoa ez dut nik gutxietsiko, baina
iduri du horrekin aski dugula,
oraingo jendarte bidegabe eta in-
dibidualizatu hau jokatzeko horre-
kin nahikoa dugula. Noski, ekoiz-
pen bitartekoen jabegoari buruzko
eztabaida baztertu genuenetik, ja-
bego pribatuari buruzko eta, az-
ken batean sistema kapitalistari
buruzko kritika zorrotza ahaztu
genuenetik, gelditzen zaiguna jen-
deen arteko harremanen arloa da.
Eta, horretarat mugatuta, eztabai-
da guztiz eskasa da.

Azken urteotan auzolana politi-
koki balioesteko egin den eginaha-
la emankorra izan da eta, horrek,
jendeak hainbat eremutan engaia-
tu ditu. Sistemak utzikeria nahi
zuen tokian herritar aktibatuak
daude, sistemari horrek nolabaite-
ko erreparoa eman diezaioke, mo-
mentu jakin batean elkarrekintzan
ari diren herritarrek erresistentzia
guneak piztu ditzaketelako. Baina,
orokorrean, erranen nuke aski era-
mangarria zaiola, zeren, herri-ja-
begoaren, komunalaren aldarria
erauzi zitzaionetik sistema kapita-
listaren muinak, jabego pribatua-
ren logikak, bere horretan dirau.
Eta, zinez, herri-jabegoaren alda-
rria sinetsirik duen herriak edonor
dardarazi dezake, herri-jabegoa ez
delako ez pribatua ezta publiko-es-
tatala ere, herriarena baita. Bere
burua sortu eta birsortzeko ahal-
mena duen herria litzateke. Egun
hain dirudi utopiko eta lekuz kan-
pkoa ezen hurbileko erronketatik
aldentzeko erabil daitekeen Esta-
tuari eta kapitalari egunerokoaren
birsorkuntza erraztuz. Miseria ko-
lektiboki gestionatzen ahal dugu
beraiek guztiaren jabetza manten-
tzen duten bizkitartean. •